



Martzillako Udala, 2018



Abendua, 2019



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. MARTZILLAKO UDALA.....	4
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	6
IV. IRITZIA	7
IV.1 Auditoria finantzarioko iritzia	8
IV.2. Legezatasuna betetzeari buruzko iritzia.....	8
V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA	10
V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera.....	10
V.2. Aurrekontu-emaitzaren egoera-orri bateratua.....	11
V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua	11
V.4. Egoera-balantze bateratua	12
V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua.....	13
VI.00 KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	14
VI.1. Udalaren aurrekontu orokorra.....	14
VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n.....	16
VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea.....	17
VI.4. Kudeaketa-alor aipagarriak.....	18
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	38
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA.....	





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2019rako fiskalizazio-programari jarraituz, Martzillako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, honako hauek deskribatzen ditugu: udal antolamendua, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak eta araudi erregulatzailerak; hirugarrenean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu, eta laugarrenean Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko gure finantza-iritzia eta legezketasuna betetzeari buruzkoa ematen ditugu. Bosgarren atalean, Kontu Orokorraren laburpen bat erantsi dugu. Seigarrenean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendioak ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Landa-lana 2019ko iraila eta urria bitartean egin zuen kontratatutako auditor-tza-enpresa batek, auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzarekin.

Jarduketa horren emaitzak Martzillako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Epea iraganda, Martzillako Udaleko alkateak alegazioak aurkeztu ditu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren menpeko enteetako langileei.





II. Martzillako Udala

Martzilla udalerrri bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 2.862 biztanle zituen eta 21,9 Km²-ko azalera duena.

Udalaren gobernu-organoak Osoko Bilkura eta Alkatea dira.

Udalak, zerbitzu publikoen kudeaketarako, honako erakunde autonomo hauek sortu ditu:

- Vicente Fontán Udalaren Musika Patronatua, musika zerbitzua emateko.
- San Bartolome Zahar-etxearen Patronatua, adinekoei arreta emateko zerbitzua emateko.

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2018ko ekitaldiaren itxieran:

Entitatea	Aitortutako esku-bideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018-12-31n
Udala	3.571.290	3.082.597	16
Udalaren Musika Patronatua	270.000	251.667	18
Zahar-etxea	712.862	726.382	21
- Bateratzearen doitzeak	-85.600	-85.600	
Bateratua, guztira	4.468.552	3.975.046	55

2018an, Udalak 77.000 euro eman zizkien erakunde autonomoei, eta 8.600 euro jaso zituen erakunde horiei emandako zerbitzuengatik.

Udalak, halaber, honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Nafarroako Erriberagoieneko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zeinaren bidez hiri hondakin solidoak kudeatu eta tratatzeko zerbitzuak ematen baitira.
- Azkoien, Martzilla, Faltzes eta Funesko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, zeinaren bidez oinarrizko gizarte zerbitzuen jarduera berekiak kudeatzen baitira.

Zerbitzu mankomunatu horiek guztiek 79.323 euroko gastua ekarri diote Udalari 2018an.

EDER partzuergoan ere parte hartzen du, eta haren helburua Erriberagoieneko landa-garapenari laguntzea da. 2018an, 16.188 eurokoak izan ziren Partzuergoarekin lotutako gastuak.





Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta haiek kudeatzeko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
	Udala	Erakunde autonomoak	Zerbitzu-kontratua	
Argiteria publikoa	X			
Hilerria	X			
Kale garbiketa			X	
Edateko uraren etxeetako hornidura	X			
Estolderia	X			
Parke publikoa	X			
Hondakinen tratamendua eta bilketa				X
Babes zibila	X			
Gizarte zerbitzuak				X
Kirol instalazioak	X			
Musika eskola		X		
Adinekoentzako arreta		X		

2018an Udalarari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.





III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Martzillako Udalaren 2018ko ekitaldiko finantza-fiskalizazioa eta legezkontasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dira, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoera bateratuari buruz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei buruz ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Udalak eta haren menpeko enteei ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren norainokoa Martzillako Udalaren 2018. urteko Kontu Orokorra da, zeina honela osatuta baitago Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren arabera:

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontua, honako hauek osatua:
 - a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.
 - b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galdu-irabazien kontuak osatzen baitute.
 - c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontuaren eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.
- Kontu Orokorren eranskinak: Oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera eta esku-hartze txostena.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legezkontasuna betetzeari dagokionez, irismena txosten honen VI. epigrafean aipatzen diren berrikusitako jarduketei dagokie.





IV. Iritzia

Martzillako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre da goen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko ekainaren 11n onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauarekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2018ko ekitaldiko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezatasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200en ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikoa erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezatasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorraren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezatasunaren ez-betetze aipagarrien





ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoriak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, aurkezpen hori bere osotasunean hartuta.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritzia funtsa izateko.

IV.1 Auditoria finantzarioko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Ondasunen inbentarioa 2015ekoa da, 400.534 eurotan baloratuta dago eta eguneratu gabe dago; bestetik, ez ditu jasotzen Udalaren ondasun eta eskubide guztiak; hartara, ezinezkoa izan da ibilgetuaren egoera-balantzearen arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori 14.241.556 euroko balorazioarekin ageri da 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuan.

Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" atalean azaldutako irismenaren mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, Udalaren erantsitako Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta Udalaren 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. Legezkoitasuna betetzeari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Udaleko diruzainak 12.500 euro gordin jaso ditu, 2014ko urtarriletik 2018ko otsailera (erretiroa hartu zuen garaia), Musika Eskolaren Patronatuko Erakunde Autonomoaren kontabilitatea eramateagatik, baina plantilla organikoan ez da osagarri gisa agertzen.





- 394.701 euro ordaindu dira hainbat kontratu amaitu ondoren egindako zerbitzu-prestazioengatik, bai eta dagokion esleipen-prozedura jarraitu gabe zerbitzuak adjudikatzeagatik ere.

Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritiz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginarengatik ez bada, Udalaren 2018ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.





V. Kontu orokorraren laburpena

Ondoren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren egoera-orri bateratu garrantzitsuenak (Udala eta erakunde autonomoak) jasotzen dira.

V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera

Gastuak, kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	1.744.861	22.050	1.766.911	1.703.653	96	1.642.267	96	61.386
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.475.863	77.361	1.553.224	1.496.845	96	1.398.910	93	97.935
3. Finantza-gastuak	3.082	20	3.102	3.143	101	3.143	100	0
4. Transferentzia arruntak	144.093	3.125	147.218	122.160	83	93.871	77	28.289
6. Inbertsio errealak	320.281	834.002	1.154.283	582.111	50	429.372	74	152.739
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	67.197	-20	67.177	67.134	100	67.134	100	0
Guztira	3.755.377	936.538	4.691.915	3.975.046	85	3.634.697	91	340.349

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betakoa (%)	Kobrantsak	% Kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	847.209	50.000	897.209	1.200.205	134	1.085.092	90	115.113
2. Zeharkako zergak	40.000	0	40.000	90.179	225	83.540	93	6.638
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.288.196	0	1.288.196	1.209.323	94	1.061.728	88	147.595
4. Transferentzia arruntak	1.272.168	0	1.272.168	1.407.230	111	1.396.991	99	10.239
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herrilurren aprobeixamendua	128.448	0	128.448	230.458	179	207.682	90	22.776
6. Besterentzeak Inbertsio errealak	0	0	0	5.535	0	5.535	100	0
7. Kapital transferentziak eta bestelako kapitaleko diru-sarrerak	180.356	17.761	198.117	325.622	164	323.382	99	2.240
8. Finantza-aktiboak	0	868.777	868.777	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	3.756.377	936.538	4.692.915	4.468.552	95	4.163.950	93	304.601





V.2. Aurrekontu-emaitzaren egoera-orri bateratua

Kontzeptua	2017*	2018
+ Aitorturiko eskubide garbiak	3.723.909	4.468.552
- Aitorturiko betebeharrak	-3.624.073	-3.975.046
Aurrekontu-emaitza	99.386	493.506
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	-348.344
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	164.980
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	229.952	260.518
Aurrekontu-emaitza doitua	329.788	570.660

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua

Kontzeptua	2017*	2018
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	219.079	448.291
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	109.374	303.914
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	453.412	513.906
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	92.589	107.381
(+) Ordainketen itzulketak	0	2.400
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-429.279	-472.293
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-7.016	-7.016
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	346.984	528.485
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	169.839	340.349
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	2.520	873
(+) Diru-sarriren itzulketak	428	428
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	11.174	16.363
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	163.023	170.472
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	139.360
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.396.825	1.800.968
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.268.920	1.860.134
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	300.000
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	52.251	48.344
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.216.670	1.511.790

*Auditatu gabeko ekitaldia





V.4. Egoera-balantze bateratua

Deskribapena	2017*	2018
A Ibilgetua	13.664.980	14.241.556
1 Ibilgetu materiala	8.750.406	9.154.559
2 Ibilgetu ez-materiala	215.615	230.149
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.598.010	1.749.916
4 Herri-ondasunak	3.099.989	3.105.972
5 Finantza-ibilgetua	960	960
C Zirkulatzaila	2.087.839	2.794.661
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	689.298	991.977
9 Finantza-kontuak	1.398.541	1.802.684
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzak	0	0
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0
Aktiboa, guztira	15.752.820	17.036.218

*Auditatu gabeko ekitaldia

Pasiboa

Deskribapena	2017*	2018
A Funts berekiak	14.844.256	15.982.833
1 Ondarea eta erreserbak	9.180.091	9.641.248
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	461.157	812.955
3 Kapitaleko dirulaguntzak	5.203.007	5.528.629
C Epe luzeko hartzekodunak	520.640	453.506
4 Jasotako mailegu, fidantza eta gordailuak	520.640	453.506
D Epe laburreko hartzekodunak	387.924	599.878
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	380.908	592.862
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzak	7.016	7.016
Pasiboa, guztira	15.752.820	17.036.218

*Auditatu gabeko ekitaldia





V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	1.509.607	1.582.091	70 Salmentak	1.172.225	1.117.760
62 Finantza-gastuak	3.795	3.144	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	300.647	275.441
63 Tributuak	81	141	72 Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuak	727.898	1.092.370
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.407.969	1.490.049	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	157.714	170.079
65 Gizarte prestazioak	113.234	128.217	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	111.810	119.660	76 Transferentzia arruntak	1.239.959	1.407.231
67 Transferentzia arruntak	45.364	2.500	77 Kapitalaren gaineko zergak	40.125	27.935
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	41.324	46.579
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	488.032	811.593	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	3.679.892	4.137.395	Guztira	3.679.892	4.137.395

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	488.032	811.593
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	301
84 Itxitako aurrekontuetako aitortutako eskubideen eta betebeharraren aldaketa (saldo zorduna)	26.873	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharraren aldaketa (Saldo hartzekoduna)	0	1.905
89 Etekin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	461.158	813.799	89 Etekin garbia, guztira (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	486.014	813.799	Guztira	486.015	813.799

* Auditatu gabeko ekitaldia





VI.00 Konklusioak eta gomendioak

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. Udalaren aurrekontu orokorra

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2018rako hasierako aurrekontu bateratuak 3,76 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak jasotzen zituen.

0,94 milioi euroko aurrekontu-aldaketak eginda —hasierako kredituen ehuneko 25 egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuak 4,69 milioi eurokoak izan ziren.

Aurrekontuaren likidazioa

2018an, gastuek 3,98 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 85ekoa eta ordaintze-maila ehuneko 91koa izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 4,47 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 95eko eta 93ko betetze- eta kobrantza-mailarekin, hurrenez hurren.

Taula honetan ageri dira Udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza-iturria	Ehunekoa
Langileak	43	Tributu bidezko diru-sarrerak	41
Bestelako gastu arruntak	40	Transferentziak	39
Inbertsio errealak	15	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	20
Kapital-transferentziak	0		
Finantza-eragiketak	2		

Gastu arruntek gastu osoaren ehuneko 83 esplikatzeko dute, eta horietatik langileria-gastuak gastu guztien ehuneko 43 dira, eta gainerako gastu arruntak, berriz, ehuneko 40. Bestalde, inbertsioek eta finantza eragiketek gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 17 egin zuten guztira. Diru-sarreretan, diru-sarrera pro-





pioak ehuneko 61 dira; beraz, beste finantzaketa-iturriak baino handiagoak, ehuneko 39 baitira.

Jarraian erakusten dugu 2018 eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazio bateratuarekin zerikusia duen adierazle-multzo baten konparazioa:

	2017	2018	Aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	3.723.910	4.468.552	20
Aitortutako betebeharrak, guztira	3.624.073	3.975.046	10
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	3.679.891	4.137.395	12
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	3.154.651	3.322.658	5
Kapitaleko diru-sarrerak	44.707	331.157	641
Kapitaleko gastuak	350.686	582.111	66
Saldo ez-finantzarioa	215.465	560.640	160
Aurrekontu-emaitza doitua	329.788	570.660	73

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018an, diru-sarrerak 744.642 eurotan handitu ziren, eta horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko ehuneko 20ko igoera izan dela, batez ere diru-sarrera arruntaren igoeraren ondorioz —457.504 euro igo dira, ehuneko 12— eta, ondoren, kapital-transferentziengatik diru-sarreraren igoeraren ondorioz —286.450 euro handitu dira, ehuneko 641—.

- 2018an, gastuak 350.973 eurotan handitu ziren, eta horrek esan nahi du aurreko ekitaldiarekiko ehuneko hamarreko igoera izan dela, batez ere kapitaleko gastuen betetzea handiagoa izan delako —231.425 euro igo dira, ehuneko 66—, eta, ondoren, funtzionamendu-gastuak ere igo direlako —168.007 euro handitu dira, ehuneko bost—.

- Aurrekontu-emaitza doitua 570.660 eurokoa da, eta 240.871 euro handitu da; hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko 73ko igoera izan da.





VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n

Ondoren 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017	2018	Aldea (%)
Aurrezki gordina	525.240	814.738	55
Finantza-zama	118.736	70.277	-41
Aurrezki garbia	406.504	744.460	83
Finantza-zamaren adierazlea	% 3	% 2	-47
Aurrezki gordinak diru-sarrerara arrunten gainean egiten duen ehunekoa	% 14	% 20	38
Zorpetze-ahalmena (%)	% 11	% 18	63
Zorra, guztira	520.640	453.506	-13
Biztanle bakoitzeko zorra	184	158	-14
Zorpetze-maila (zor bizia/diru-sarrerara arruntak)	% 14	% 11	-23
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.216.670	1.511.790	24
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubideak)	% 36	% 41	6
Kobranta zalantzarriaren indizea (Kobranta zalantzagarriko zordunen saldoa/zordunak)*100	% 76	% 58	-24

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- 2018an, aurrezki garbia positiboa izan zen, 744.460 eurokoa, eta horrek esan nahi du Udalak nahikoa baliabide arrunt sortu zituela funtzionamendugastuei eta finantza-zamari aurre egiteko; finantza-zama ehuneko 41 murriztu zen aurreko ekitaldiarekiko.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 1,51 milioi eurokoa izan zen, eta ehuneko 24 handitu zen aurreko ekitaldiarekiko, batez ere diruzaintzako funts likidoen igoeragatik. Nolanahi ere, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin positiboa egoteak adierazten du hurrengo ekitaldietan aurrekontualdaketak finantzatzeko likidezia badagoela.

- Udalaren 2018ko abenduaren 31ko zor bizia 453.506 eurokoa zen, eta ehuneko 13 jaitsia zen.

Azken batean, finantza-egoera kaudimenduna da, aztertutako adierazleek erakusten dutenaren arabera. Adierazle horiek positiboak dira, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta hobera egin dute.





VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionaleko irizpideei jarraituta, honako ente hauek hartzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera eta erakunde autonomoak.

Administrazio publikotzat hartutako entitateek honako datu hauek izan dituzte:

- Aurrekontu-egonkortasuna.

342.863 euroko finantzaketa-gaitasuna sortu da.

Finantzaketa-gaitasuna

	Zenbatekoa, 2018
Finantzaz besteko diru-sarrerak	4.468.552
Gastu ez-finantzarioak	-3.907.912
Saldo ez-finantzarioa	560.640
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakako diru-sarreraren kobrantzak	-217.598
Europar Batasunaren dirulaguntzak	0
Geroratutako ordainketa	0
Kontabilitate-sortzapeneko aldeak	-179
Finantzaketa-gaitasuna	342.863

- Gastuaren araua.

2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 72.150 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gainditzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

Gastu-araua

	Zenbatekoa, 2018
2017ko gastu konputagarri bateratua	3.210.278
% 2,4ko igoera	77.047
2018rako aurreikusitako gastu-muga	3.287.325
2018ko gastu konputagarri bateratua	3.215.175
2018ko gastuan izandako desbideratzea	-72.150

- Iraunkortasun finantzarioa

a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 11 da, ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.





b) Merkataritza-zorraren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gainditzen 30 egun baino gehiagotan berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarrita dagoen gehieneko epea.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	-12,94
Bigarren hiruhilekoa	17,86
Hirugarren hiruhilekoa	14,52
Laugarren hiruhilekoa	17,34

Ordaintzeko batez besteko epeak lehen hiruhilekotik gainerako hiruhilekoe-tara izan duen bilakaerak ez du esan nahi adierazleak okerrera egin duenik; aitzitik, 2018ko apiriletik aurrera aplikatu beharrekoa den 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu-metodologia berriaren ondorioa da.

VI.4. Kudeaketa-alor aipagarriak

VI.4.1. Alderdi orokorrak

2018ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2017ko abenduaren 29an onetsi zuen, hasiera batez, Udalaren Osoko Bilkurak. Behin jendaurrean jartzeko aginduzko izapideak beteta, behin betiko onetsi zen eta 2018ko martxoaren 8ko NAOn argitaratu zen.

Aurrekontua likidatzeko espedientea Alkatetzaren 2019ko apirilaren 12ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta Kontu Orokorra Osoko Bilkuraren 2019ko ekainaren 11ko Erabakiaren bidez, araudiak eskatutako izapideak bete ondoren.

Egin dugun berrikuspenean oinarritua, honako hau adierazi behar dugu:

- Ez dago Udalaren ondasunen inbentario eguneraturik. 2015ean, kanpoko enpresa kontratatu batek ondasunen inbentarioaren balorazioa egin zuen. Inbentario horren balioa 400.534 eurokoa da; alabaina, 2018-12-31n ibilgetuaren kontabilitate-saldoa 14.161.236 eurokoa da.
- Bai Udalak, bai zahar-etxeak, bi lotura poltsetan dagoen kreditua gainditu dute, 8.654 eurotan eta 7.067 eurotan hurrenez hurren. Egoera hori agerian jarri zuen idazkari kontu-hartzaileak Kontu Orokorrari buruz egindako txostenan.





Gure gomendioak:

- *Inbentarioa eguneratzea eta haren datuak egoera-balantzearen ibilgetuan erregistratutako balioekin bateratzea.*
- *Aurrekontuetan egin beharreko aldaketak garaiz eta behar bezala izapidetzea, kredituen lotura juridikoko poltsak ez gainditzeko.*

VI.4.2. Barne-kontrola

Kontu-hartzaitzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

- Udalean, idazkari kontu-hartzaileak betetzen ditu barne-kontrolako eginkizunak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. tituluaren xedatutakoa betez.
- Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzaitzaren eginkizunaren bitartez egiten da, gastuen alde aurreko fiskalizazio osoaren bitartez. Ez Udalean, ez erakunde autonomoetan ez da kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren kontrolik egiten.
- Barne-kontrolako eginkizunez gain, 6/1990 Foru Legeak Kontu-hartzaitzari emandako zereginak dira aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuena, bai eta kontabilitatea ere; idazkari kontu-hartzaileak betetzen ditu eginkizun horiek, diruzaintzako funtzioak dituen erdi mailako teknikari berriaren laguntzarekin.
- 2018ko ekitaldian, idazkari kontu-hartzaileak kontratazioaren arloko ez-betetzeei buruz egindako zortzi eragozpen-ohar ageri dira. Kasu guztietan, alkateak eragozpen-oharren aurkako erabakiak hartu zituen.
- Erakunde autonomoetan, idazkaritza kontu-hartzaitzak gastuak, langileen nominak barne, kontabilizatu, berrikusi eta ordaintzen ditu. Hala ere, nominak kanpoko aholkularitza-enpresa batek egiten ditu, eta aplikatzen den barne-kontrola nominen hileko aldaketen gainekoa da.
- Aipatu behar dugu 2018ko otsailean honako hauek ordeztu zirela: diruzaina, aurrekoak erretiroa hartu zuelako, eta idazkari-kontu-hartzailea, aurrekoak lanpostuari uko egin ziolako, 2018ko martxoan, idazkari kontu-hartzaile berriak eta diruzaintzako funtzioak dituen erdi-mailako teknikari berriak, 2017ko ekitaldia ixtean, txosten bat egin zuten, elkarrekin. Txosten horretan, kontabilitate- eta kudeaketa-irregulartasun batzuk azaldu zituzten, zeinak kontuan hartu baititugu gure fiskalizazioan zenbait jarduketa berrikusterakoan.

Era berean, agerian jarri nahi dugu, gure txosteneko VI.4.3, VI.4.5 eta VI.4.13 ataletan adierazten den bezala, Udalak aurreko ekitaldietan ez zuela barne-kontrolako sistema egokirik erabili, langile jakin batzuen ordainsariak,





aplikatu beharreko lege-esparrua gainditzen zutenak, ordaintzea eta horiek itzultzea saihestu zezakeenik.

Gomendatzen dugu baloratzea kontu-hartzaitzaren giza baliabideak nahi-koak ote diren barne-kontrola egiteko, eta, hala badagokio, finantza- eta eraginkortasun-kontrola egiteko behar beste baliabide ematea.

VI.4.3. Udaleko langile-gastuak

Udaleko langileen gastuak 993.161 eurokoak izan ziren, behin betiko aurre-kontu-kredituen ehuneko 96ko exekuzio-mailarekin, eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 32 dira; beraz, aurreko ekitaldian baino ehuneko bat handiagoak izan dira, eta aurrekontuei dagokienez honako aldaketa hauek izan dira:

Udala	Aitortutako betebehargarbiak, 2017	Aitortutako betebehargarbiak, 2018	Aldea	%
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	48.308	48.313	5	0
Funtzionarioak	340.042	330.546	-9.496	-3
Lan-kontratudun langileak	268.485	267.729	-756	0
Errendimendurako pizgarriak (aparteko orduak)	9.659	6.191	-3.468	-36
Kuota sozialak	316.077	340.381	24.304	8
Guztira	982.572	993.161	10.589	1

Gastuaren igoera Gizarte Segurantzarako kuota handiagoak aitortzean erregistratzen da, batez ere, diruzainaren erretiroagatik —montepioen sisteman afiliatuta zegoen— eta erdi mailako teknikari lanpostuaren kontratazio berriagatik —Gizarte Segurantzako araubide orokorrean—.

Bestalde, langileen soldatak murriztu dira diruzainak erretiroa hartu duelako —ordainsari txikiagoa duen beste pertsona batek ordeztu du— eta zerbitzu anitzetako arduradunak 2018ko irailean erretiroa hartu duelako —lanpostu hori hutsik geratu da—. Halaber, aparteko orduen gastu orokorra jaitsi dela ikusi da.





Udalaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoak batera argitaratu ziren 2018ko apirilaren 16ko 72. NAO-n. Hauexek dira Udalari dagozkion datuak, urteen arabera emanak:

Langileak	Udala
Funtzionarioa	12
Lan-kontratupekoa	5
Guztira	17
Lanpostu hutsak	7
Betegabeak, %	% 38
Betetako lanpostu hutsak	6
Betetako lanpostu hutsak (%)	% 86

2018an, lanpostu guztien ehuneko 38 hutsik daude; horietatik, ehuneko 86 aldi baterako beteta daude, eta gainerakoek, ehuneko 14k, bete gabe jarraitzen dute.

Langileei dagokienez, honako hau aipatu behar dugu:

- Udaleko langileek 2014ko ekitaldiko hitzarmen kolektibo bat dute, zeina indarrean baitago eta funtzionarioei zein lan-kontratudunei aplikatzen baitzaie. Kanpoko aholkularitza juridikoari buruzko txosten bat badago, non iritzia ematen baita haren erabateko deuseztasunari buruz eta ofiziozko berrikuspen-prozedura bat hasteko komenigarritasunari buruz, Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren.

Horri dagokionez, esan behar dugu Martzillako Udalaren Osoko Bilkurak, 2019ko abuztuaren 19an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuela ofizioz berrikusteko prozedura hastea, aipatutako hitzarmen kolektiboaren betearazpena etetea eta Nafarroako Kontseiluak nahitaezko txostena egin zezan eskatzea.

- Ez dago jasota 2018ko ekitaldirako enplegu-eskaintza publikoa onetsi denik.

Egindako azterketatik, hauek nabarmenduko ditugu:

- Lagineko langileetako baten ordainsariaren kasuan, plantilla organikoan adierazitakoa baino lanpostu-osagarri handiagoa ordaintzen ari zaio. 2019an, Udalak ofizioz berrikusteko prozedura hasi du, langilearen ordainsariaren aldaketa deuseztatzea jartzeko, Nafarroako Kontseiluak irizpena eman ondoren.

- Ikusi da kasu batzuetan PFEZarengatik aplikatutako atxikipenak indarrean dauden zerga-taulak baino txikiagoak direla.

- Plantilla organikoan lan-kontratudun finko huts gisa kalifikatuta dagoen lanpostu bat badago, eta haren ordezteko administrazio-erregimeneko kontratuaren fi-





gura erabiliz egin da, lan-araubidearena erabili ordez. Hala ere, jasotako ordainsariak bat etorri dira lan-araubidearekin, plantilla organikoan xedatzen den bezala¹.

- Lagineko sei langileetatik hiru aldi baterakoak dira, 1998, 2003 eta 2010eko ekitaldietatik aurrerako kontratuekin, eta egiturazko lanpostuetarako iraupena nabarmen gainditzen dute, beharrezkoak diren eta denboran jarraituak diren eginkizunak betetzen dituztelako.

Lanpostu horiek lan-eskaintza publikoetan zenbatu ahal izanen dira, 2017rako eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritako aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa gehigarriak eskaintzen dituen aukeren arabera.

- Aurreko diruzainaren ordainsariei dagokienez (2018ko otsailean erretiroa hartu zuen Udaleko funtzionarioa), honako hau antzeman da:

a) Jasotzen zituen ordainsarrietan artean 3.000 euro sartzen ziren urtero Musika Eskolaren Patronatuaren kontabilitatea eramateko, Musika Eskolaren Patronatuaren 2006ko ekaineko erabaki batean oinarrituta. Udalak erabaki horren gainean duen borondatea jasota badago ere, urteko zenbateko horren deskontua onartu duelako, kontzeptu horrengatik urtero Patronatuari esleitzen dion funts-transferentziaren kargura, ez dago jasota Udalaren Osoko Bilkurak baimen horri buruz hartutako erabakirik, eta ez da osagarri gisa ageri Udalaren plantilla organikoan.

b) 2014ko urtarriletik 2018ko otsailera arte jaso duen zenbateko gordina 12.500 eurokoa izan da (500 euro 2018an).

c) Era berean, aldi horretan 1.317 euro jaso ditu aparteko orduengatik (545 euro 2018an), baina ez dago jasota horri buruzko dokumentu bidezko justifikaziorik.

d) Hileko nominak ez daude jasota Udalaren dokumentazioan.

Aurreko diruzaina ordeztzen duen erdi mailako teknikariak ez du aipatutako osagarria jasotzen.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan dauden lanpostu hutsen deialdia egitea, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako aldi baterako egonkortze-tasa gehigarriarekin bat etorritz.*

- *Plantilla organikoetan lanpostuen ordainsari osagarri guztiak jasotzea.*

- *PFEZagatiko atxikipenak aplikatzea, aplikatu beharreko atxikipen-ehunekoaren taulen arabera.*

¹ 1. alegazioaren bigarren paragrafoaren bidez aldatutako paragrafoa.





VI.4.4. Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak 1,26 milioi eurokoak izan ziren, ekitaldian aitortutako obligazio guztien ehuneko 41 dira, eta haien betetzea behin betiko kredituen ehuneko 96koa izan zen, aurreko ekitaldiko gastuak baino ehuneko zazpi handiagoak. Gastuen kapitulu honen fiskalizazioa 2018an lizitatutako eta/edo adjudikatutako gastu-partiden eta zerbitzuen lagin baten gainean egin da.

Gastu-partidak

Partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
0-3 urteko haurrentzako hezkuntza zentroaren kudeaketa	113.729
Uren Udal Zerbitzuaren kudeaketa	104.084
Zergen ikuskapena eta berankorrei kobratzeko kudeaketa	63.730
Argiteria publikorako energia	62.818
Kale garbiketa arrunta	34.446
Ikastetxearen garbiketa	22.225
Arkitektoaren aholkularitza eta hirigintza-txostenak	20.598
Kirolguneko instalazioen kudeaketa	20.000
	441.630

Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, aurrekontu-partidetako gastuak onetsita daudela, kontu-hartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla.

Egindako azterketan oinarrituta, ondoko gorabeherak nabarmendu behar ditugu:

- Kontratu-euskaririk gabe emandako zerbitzu hauek ordaindu dira, kontratuen indarraldia amaitu delako:

Kontratua	Aitortutako betebeharrak, 2018
Uren Udal Zerbitzuaren kudeaketa	104.084
Kale garbiketa arrunta	30.888
Ikastetxearen garbiketa	22.225
Agentzia Exekutiboa	13.322
Kirolguneko instalazioen kudeaketa	8.333
Guztira	178.852

Hala ere, aipatu behar dugu 2018ko abenduan bide-garbiketako zerbitzu arruntaren kontratua adjudikatu zela, eta 2018ko ekainean kirol-guneko instalazioen kudeaketarena.





• Honako zerbitzu hauek zuzenean kontratatu dira, dagokion esleipen-prozedura izapidetu gabe:

Kontratua	Aitortutako betebeharrak, 2018
Tributu-objektuei buruzko berrikuspen-plana	50.409
Aholkularitza-zerbitzuak eta hirigintza-txostenak	15.503
Argiteria publikoa	62.818
Guztira	128.730

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

"Martzilla eta Funesko udal-mugarteetako bide-garriketa" zerbitzua 2018an kontratatzeke espediente berrikusi da.

Kontratua	Prozedura	Esparru juridikoa	Zenbat lizitatuak	Lizitazioaren zenbatekoa*	Prezioa Adjudikazioa*	Beharrena (%)
Hiriko bideetako garriketa Martzilla eta Funesko udal-mugarteetan	Irekia, Europako atalasetik gora	2/2018 Foru Legea	2	78.000	77.635	0,5

* Zenbatekoak BEZik gabe:

Kontratuaren lizitazioa, adjudikazioa eta betetzea kontratuei buruzko legeriararen arabera egin dira.

Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espeditentak izapidetzea kontratuak amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera kontratazio publikoari buruzko araudiak hala aurreikusten duen kasuetan.

VI.4.5. Udalaren transferentzia arruntengatiko gastuak

Transferentzia arruntetako gastuak 199.160 eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko sei egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 89koa izan zen. Aurreko ekitaldian baino ehuneko bost handiagoak izan ziren, batez ere, Udalaren Musika Patronatuari egindako transferentziak 10.675 euro igo zirelako eta "Erriberagoieneko prestakuntza- eta enplegu-plan espresa"ri emandako laguntzak 9.371 euro igo zirelako.

Honako gastu-partida hauek berrikusi dira:

Partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Musika Patronatua	67.000
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	63.952
Musika bandarekiko hitzarmenerako transferentzia arrunta	18.000
San Bartolomé egoitza	10.000
Erriberagoieneko prestakuntza- eta enplegu-plan espresa	9.370
Aurora-Marcilla klubarentzako dirulaguntzak	3.500
Gurasoen elkartearentzako dirulaguntza, kultura-jardueretarako eta ludotekarako	2.100
	173.922





Berrikuspen hori eginda, esan beharra daukagu ezen, oro har, transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera eman eta erregistratu direla; halere, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Ez dago jasota musika bandarekin sinatutako hitzarmenik dagoenik.

- Halaber, eta aztertutako laginean sartu gabe, "Asociación Cultural Banda de Música Joven de Marcilla" elkarteari dagokion transferentzia-partida berrikusi dugu, egungo idazkari kontu-hartzaileak eta erdi-mailako teknikariak detektatu baitute laguntza hori arautzen duen hitzarmenaren ez-betetzeak izan direla; izan ere, erakunde onuradunak ez du finantzatutako jardueraren justifikaziorik aurkeztu ekitaldia ixtean. Adierazi behar dugu partida horrek ez zuela aurrekontu-betetzetik izan 2018ko ekitaldian, idazkari kontu-hartzaileak uko egin ziolako 2018an proposatutako ordainketari.

Hitzarmen horri dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:

a) Hitzarmena 2015eko urrikoa da, eta honako klausula hauek ditu:

1.- Hitzarmenaren lehenengo klausulak honako hau ezartzen du:

"Dirulaguntzaren helburu zehatza Martzillako musika banden zuzendari koordinatzaile bat kontratatzea da"

2.- 5. klausularen a) letrak honako hau ezartzen du aipatutako elkartearen betebeharrak direla eta:

"Hitzarmenaren lehenengo klausulan aipatzen den bandaren zuzendaria kontratatzea"

3.- 9. klausulak honako hau ezartzen du:

"Hitzarmen honek sinatzen den unetik 2015eko abenduaren 31ra arte iraunen du, 5. klausularen a) letran aurreikusitako betebeharra betetzeari kalterik egin gabe. Automatikoki luzatuko da 2016ko ekitaldirako, eta horretarako aurrekontu-kreditua egotearen mende egonen da luzapena, eta automatikoki ebatziko da Vicente Fontán Musika Patronatuaren plantilla organikoak hitzarmen honen xede diren jarduerak egiten dituen lanposturako ordainsari-osagarriak ezartzen dituen unean".

b) Honako hauek dira Udalak, aipatutako hitzarmenean oinarrituta, egin dituen ekarpenak: 7.002 euro 2015ean, 8.750 euro 2016an eta 8.750 euro 2017an.

Ez dago jasota ekitaldi horietan urteko likidazioaren aurreko urrats gisa eskatzen den justifikazio-kontua egiaztatu denik.

Alegazioen fasean, Udalak egiaztatu du emandako dirulaguntza itzultzeko espedientea hasi dela².

c) Patronatuaren 2015eko plantilla organikoan, "Saxofoi eta Musika-hizkuntzako irakaslea, musika eskolako koordinatzaile eta musika bandetako zuzendari eginkizunekin" lanpostua ageri da, ehuneko 12,56ko osagarriarekin, "Musika-bandak zuzentzeko funtzioengatik".

² 2. alegazioaren lehenengo paragrafoaren bidez aldatutako paragrafoa.





Horri buruz, esan beharra daukagu 2006ko urtarrilaren 2ko 1. NAOn honako deialdi hau argitaratu zela: “Martzellako Udalaren Musika Eskolako saxofoi irakasle izateko lanpostu bat, Musika Eskola koordinatzeko eta bandak zuzentzeko lanak ere badituena, lan-kontratu finkokoa eta lanaldi partzialekoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia”. Haren xedeari buruz, honako hau aipatzen zen 1.1 oinarrian:

“1.1. Deialdi honen xedea da Martzellako Udalaren Musika Eskolako saxofoi eta musika hizkuntzako irakasle izateko lanpostu bat, Musika Eskola koordinatzeko eta bandak zuzentzeko lanak ere badituena, oposizio-lehiaketa bidez betetzea.”

Udalaren Musika Patronatuko zuzendariaren ordainsariei dagokienez, zeina, aldi berean, Martzellako Gazte Musika Bandaren zuzendaria baita, gure txostenaren VI.4.13 atalean aztertutakoari lotzen gataizkio.

Halere, esan beharra daukagu hitzarmenaren xedeak kausarik ez duela.

Gure gomendioak:

- *Zuzeneko emakida bidez kudeatzen diren dirulaguntzetarako lankidetzahitzarmenak sinatzea.*
- *Martzellako Gazte Musika Banda Kultur Elkartearekin egindako hitzarmena berrikustea, legez ezarritako administrazio-prozedurarekin bat etorritz.*

VI.4.6. Inbertsioak

562.601 milioi euroko inbertsioak egin ziren, eta 2018an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 18 egin zuten. Behin betiko kredituen ehuneko 50eko bete-tze-maila izan zuten, ez baitziren egin aurreikusitako obra batzuk, zenbateko aipagarria zutenak.

Hala ere, 2018ko inbertsioetako gastu nagusiak honako hauek izan ziren:

Inbertsioak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Igerilekuetako instalazioak egokitzea	103.477
Padel pistak estaltzea	100.077
Aranjuez pasealekuko eraikina eskuratzea	70.000
Basoetako hobekuntzetan, makaldietan eta abarretan egindako inbertsioak	67.528
	341.082

Gastuen kapitulu honen fiskalizazioa 2018an lizitatutako eta/edo adjudikatutako gastu-partiden eta obra-kontratuen lagin baten gainean egin da.

Gastu-partidak

Fiskalizazioan, gastu handieneko partida hauek berrikusi dira:

Deskribapena	Aitortutako betebeharrak, 2018
Igerilekuetako instalazioak egokitzea	103.477
Padel pistak estaltzea	100.077





Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak onetsita daudela, kontu-hartzaileak baimenduta eta zuzen kontabilizatuta daudela, eta epean ordaindu direla, aplikatzekoak diren kontratuei jarraituz.

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

2018an egindako obra-kontratuen lizitazio eta adjudikazio hauek berrikusi dira:

Kontratua	Prozedura	Esparru juridikoa	Zenbat lizitazaile	Lizitazioaren zenbatekoa*	Prezioa Adjudikazioa*	Beharapena (%)
Zolatzea eta sareak berritzea (1. lotea + 2. lotea)	Erraztua	2/2018 Foru Legea	4	1.244.814	1.040.848	16
Argiteria publikoaren instalazioak berritzea	Erraztua	2/2018 Foru Legea	5	93.535	73.941	21
Udalaren kirol eremuko zoladurak konpontzea	Erraztua	2/2018 Foru Legea	3	58.954	58.040	2
Aranjuez pasealekuko eraikina eskuratzea	Kontratazioa zuzena	6/1990 Foru Legea	1	70.000	70.000	0

* Zenbatekoak BEZik gabe:

Aurreko kontratuen adjudikazioa eta betetzea berrikusita, konklusioa da ezen, oro har, aplikatzekoa den araudia errespetatu dela, eta gastuak baimenduta, kontu-hartzaileak aztertuta eta zuzen kontabilizatuta daudela, eta epean ordaindu direla.



**VI.4.7 Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk****Zergak eta tasak**

Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak 1,72 milioi eurokoak izan ziren eta diru-sarrera guztien ehuneko 48 egiten dute; honako hauek dira:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Zuzeneko zergak	1.200.204
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	26.433
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	463.856
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	170.079
Hiri-lurren balioaren igoera	27.935
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	511.901
Zeharkako zergak	90.179
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	90.179
Tasak	428.228

Hauek dira Osoko Bilkurak 2018ko ekitaldirako onetsi zituen zerga-ordenantzetan ezarritako zerga-tasak:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2942	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	13	8-25
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,86	2-5

Azken balorazio-ponentzia 2011ko ekitaldikoa da. 2019ko otsailean "Trabajos Catastrales SA" sozietate publikoari adjudikatu zaio balorazio-ponentzia berri bat egitea.

Diru-sarreraren honako partida hauek berrikusi ditugu:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Zergak	
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	463.856
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	511.901
EIOZa	90.179
Tasak	
Ur horniduraren fakturazioa	129.099
Udal igerilekuen erabilera	46.423

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da diru-sarrerak aplikatu beharreko araudiaren arabera likidatu eta bildu direla.





VI.4.8. Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak

Diru-sarrera horiek 1,20 milioi eurokoak izan ziren 2018an eta 1,14 milioi eurokoak, berriz, 2017an. Honakoa hau da diru-sarretako partida nagusien alderaketa:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2017	Aitortutako eskubide garbiak, 2018	Aldea	%
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	718.533	747.691	29.158	4
Errege Bardeako Komunitatea	195.000	195.000	0	0
Montepioak finantzatzeko dirulaguntzak	40.142	80.786	40.644	101
Dirulaguntzak Hezkuntza Departamentua, 0-3 zentroaren kudeaketarako	67.801	78.878	11.077	16
Langabetuak kontratatze dirulaguntza	43.800	48.600	4.800	11
Alkate eta zinegotzientzako diru-konpentsazioak	31.501	32.162	662	2
	1.096.777	1.183.117	86.340	8

Diru-sarrerak handitu dira Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsetik jasotako zenbateko handiagoengatik eta jasotako dirulaguntzengatik.

Diru-sarreraren honako partida hau berrikusi dugu:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Hezkuntza Departamentuaren dirulaguntza, 0-3 zentroaren kudeaketarako	78.878

Egindako berrikuspenarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, jasotako dirulaguntza aplikatzekoa den araudiaren arabera kudeatu, kontabilizatu eta kobratu dela.

VI.4.9. Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondare bidezko diru-sarrerak 230.451 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko bost egiten dute. Likidazioa behin betiko aurreikuspenen ehuneko 179 izan zen, eta ehuneko 18 jaitsi zen aurreko ekitaldiarekiko; jaitsiera hori baso-aprobetxamenduek eragindako diru-sarrierei egotz dakieke ia osorik, 47.207 euro jaitsi baitziren, hau da, ehuneko 18.

Diru-sarreraren honako partida hau berrikusi dugu:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Baso-aprobetxamenduak	214.048

Egindako berrikuspenean oinarrituta, esleipen-prozedura eta haren likidazioa zuzenak dira.





VI.4.10. Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak

Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 325.622 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 7 egin zuten. Likidazioa behin betiko aurreikuspenen ehuneko 164 izan zen, eta % 621 igo zen aurreko ekitaldiarekiko; igoera hori ia osorik egotz dakieke Kirol Kontseilu Gorenak gimnasio bat erakitzeke emandako dirulaguntza baten ondoriozko diru-sarrerei.

Diru-sarreraren honako partida hau berrikusi dugu:

Aitortutako eskubide garbiak, 2018	
Kirolaren Kontseilu Nagusiaren dirulaguntza	300.000

Egindako lanarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudia-
ren arabera likidatu eta bildu dela.

VI.4.11. Hirigintza

Indarrean dagoen udal plangintza 2018ko martxoan onetsi zen behin betiko, eta 2018ko apirilean NAOn argitaratu ondoren jarri zen indarrean.

Udalak ez du lurzorua udal ondarearen erregistrorik.

Lurzorua udal ondarearen erregistroa eratzea gomendatzen dugu, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren esparruan aurreikusitako helburuak betetzeko.

VI.4.12. Ingurune teknologikoa

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan. Daukaten garrantzia dela eta, Martzillako Udalaren Kontu Orokorrari buruzko txostenean konklusio batzuk jaso ditugu “ingurune teknologikoari” edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemei buruz eta informazio-teknologiaren gaineko Udalaren kontrolei buruz.

Informazioaren teknologiaren kudeatzailea Animsa udal sozietate publikoa da. Azterketa hori egiteko, galdetegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeke.

Oro har, zibersegurtasunaren kudeaketa egokia egiten bada ere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Ez zaio heldu Segurtasun Eskema Nazionalaren araberrako ezarpenari.
- Ez dago jasota erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen duen eta erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartzen duen idatzizko prozedurarik dagoenik.
- Pasahitzak autentifikatzeko politikak nolabaiteko ahultasun-maila du.





- Gailu mugikorren segurtasun politikak ez dira nahikoak.
- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorriari dagokionez, datuak babes-teko ordezkariaren izendapena eta tratamendu-jardueren erregistroa jasota daude. Era berean, araudi horretara egokitzen dela egiaztatzen duen ziurtagiria ere badu, kanpoko enpresa batek emana.
- Ez dago jasota faktura elektronikoa bultzatzeko eta fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak eskatutako sistemen urteko auditoretza-txostena.

Gure gomendioak:

- *Segurtasun Eskema Nazionalaren arabera ingurune teknologikoa ezartzea.*
- *Administrazio-pribilegioen kudeaketa hobetzea, erabiltzaile administrazioaileen baimena eta erabilera arautzen duen idatzizko prozedura bat sortuz, erabiltzaile administrazioaile izendunak sortzera behartuz, eta kontu generikoak erabiltzeko biderik eman gabe.*
- *Pasahitzen bidezko autentifikazio-politika indartzea, haren konfigurazioa behartuz ohiko jardunbide egokiei jarraituz, hizki, zenbaki eta karaktere be-reziak izan ditzaten.*
- *Gailu mugikorren segurtasun politikak indartzea.*

VI.4.13. Udalaren Musika Patronatua

VI.4.13.1. Udalaren Musika Patronatuaren izaera juridikoa

Izaera juridikoari dagokionez, honako hau aipatu behar dugu:

- 1998ko maiatzaren 20ko 60. NAO-n Martzillako Udalaren Musika Patronatuaren Estatutuak argitaratu ziren. Haren lehenengo artikuluan honako hau ezarri zen:

“UDALAREN MUSIKA PATRONATUA sortu da Marcillan. Irabazi asmorik gabeko elkar-tea da eta honako hauek arautuko dute: estatutu hauek, Patronatuko zuzendaritza organoek nork bere eskumenen esparruan hartzen dituen baliozko erabakiak eta elkarteen gaineko egungo legeria.”

- Aipatutako datan erakunde autonomo gisa erregistraturik agertzen da Nafarroako Gobernuaren tokiko sektoreko erregistroan. 1998az geroztik, erakunde auto-nomoaren administrazio-, aurrekontu- eta finantza-tratamendua eman zaio, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta aplikatu beharreko gainerako sektore-esparruan ezarritakoarekin bat etorritik.





• Hala ere, informazioa eskatu diegu Udalari, Hezkuntza Departamentuari eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari. Honako hau adierazi beharra daukagu:

- a) Patronatua eratzeko data ez dago jasota.
- b) Estatutuetan jasotzen da irabazi-asmorik gabeko elkarte delako, eta hori bateraezina da Udalaren erakunde autonomo gisa duen izaerarekin.
- c) Ez da administrazio-egintzarik aurkeztu, erakunde autonomo gisa eratu dela egiaztatzen duenik, arestian aipatutako 6/1990 Foru Legearekin bat etorriz, edo, hala badagokio, irabazi-asmorik gabeko elkartearen jatorrizko izaera juridikoa erakunde autonomo bihurtzen duenik.
- c) Haren estatutuek ez dituzte betetzen Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako zehaztapenak, eta, beraz, formalizatu egin behar dira, toki-araubidearen araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Patronatuaren estatutuak aldatzea gomendatzen dugu, tokiko legerian ezarritakoarekin bat.

VI.4.13.2. Fiskalizatutako arloak

Honako gastu hauek aztertu ditugu:

Langile-gastuak

Langile-gastuak 211.855 eurokoak izan ziren 2018an, ehuneko 90eko bete-tze-portzentajearekin, eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 84 egin zuten. 2017ko urtearen aldean, gastu hori ehuneko bederatzi jaitsi da. Hona haren xehaketa eta 2017koekiko konparazioa:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak, 2017	ORN2018	Aldea (%) 2017/2018
Funtzionarioak	37.447	38.055	2
Irakasleak	138.071	121.328	-12
Gizarte-zamak	56.273	52.472	-7
Guztira	231.791	211.855	-9

Langileen gastuak behera egin du, batez ere, Arguedasko udalerrian eskola itxi delako, eta horrek ekarri du plantillan hiru langile gutxiago jasotzea eta laugarren langile batek eszedentzia eskatzea.





Honako hau da plantilla organikoko lanpostuen 2018ko egoera:

Langileak	Musika Patronatua
Funtzionarioa	1
Lan-kontratupekoa	26
Guztira	27
Lanpostu hutsak	26
Betegabeak, %	% 96
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	21
Betetako lanpostu hutsak (%)	% 81

2018an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 96 hutsik daude; horietatik, ehuneko 81 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 19k, bete gabe jarraitzen dute.

Egindako berrikuspenean oinarrituta, honako hau aipatu behar dugu:

- Lanpostu hutsak mugagabe ez-finko gisa kalifikatutako langileek eta aldi baterako kontratudunek betetzen dituzte.

- Oro har, patronatuak egindako kontratazio-zerrenda baten bidez egiten dira kontratazioak, musika-eskolaren jardueran esperientzia duten pertsonekin. 2018. urtean ez dago langileen kontratazio berririk.

2018ko irailetik aurrera, aldi baterako langile guztiak lanaldi partziala duten langile mugagabe ez-finko bihurtzen dira, Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Probintzialaren akta baten ondoren. Akta hori Patronatuan onartu zen, eta Udalari egoera horren berri eman zitzaion.

- Nominen lagin bati buruzko berrikuspena eta haren azterketa eginda, ondorioztatzen dugu 2018an ordaindutako ordainsariak, oro har, betetzen den lanposturako ezarritakoak direla, eta egindako atxikipenak zuzenak direla.

Hala ere, Patronatuko zuzendariaren ordainsariei dagokienez, honako hau adierazi behar dugu:

a) Saxofoiko eta musika-hizkuntzako irakaslearen lanpostuari, zeina Musika Eskolako zuzendaria baita, 2014ko otsailetik 2015eko otsailera bitartean lanpostuaren osagarria ehuneko 46,9raino handitu zitzaion, eta osagarri hori ordaindu egin zitzaion.

b) 2014ko azaroan, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Udalaren 2014ko plantilla organikoa onestearen aurka, aipatutako lanpostuaren osagarriari dagokionez.





Errekurtsoa 2015eko maiatzean baietsi zuen Administrazioarekiko Auzien Salaren Epaitegiak, eta aipatutako soldata-osagarria aurkaratuta geratu zen. Udalak demanda horren aurrean amore eman zuen.

c) 2015eko uztailean, aipatutako epaia betetzea ebatzi zen, alkatetzaren kasuko ebazpenaren bidez. Ebazpen hori, ordainsariak erregularizatzeko eranskin batekin batera, Patronatuko orduko lehendakariari helarazi zitzaion, eta sobera jasotako ordainsariak erregularizatzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko txostena eskatu zitzaion, baina ez dago jasota Patronatuko Lehendakaritzak horri buruz inongo txosten edo agindurik eman izana.

Adierazi nahi dugu egungo idazkari-kontu-hartzaileak 2019ko irailaren 17ko txostena eman zuela, eta, bertan, erregularizatu beharreko zenbatekoak eguneratu ondoren, ondorioztatu zuela Udalak lehen aipatutako epaia betearazi behar duela, errekurtsoren xede izan zen lanpostu-osagarriarengatik bidegabeki jasotako zenbatekoei buruzkoa. Txosten hori oinarri hartuta, 2019ko irailaren 19an, alkatetzak ebazpen bat eman zuen, eta, bertan, epai hori betez, Patronatuko zuzendariari eskatu zion ordain zezala behar zuenez gainetik kobratutako zenbatekoa —10.116 euro gehi sortutako interesak zela zenbatetsi zen—, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

2019ko urriaren 10ean, Musika Eskolako zuzendariak ebazpen horren aurkako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen. Alkatetzaren 2019ko azaroaren 5eko ebazpenaren bidez, partzialki onetsi zen interesdunak jarritako berraztertze-errekurtsoa, eta eskatu zitzaion ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean 7.836,75 euroko zenbatekoa borondatez ordain zezala. Zenbateko hori 2019ko abenduaren 2an ordaindu da³.

d) 2015eko urrian, hitzarmen baten bidez hartu zen "Martzellako Gazteen Musika Banda Kultur Elkartearekiko" konpromisoa. Gure txostenaren VI.4.5 atalean aztertu da hitzarmen hori. Hitzarmen honetatik eratorritako konpromisoen ondorioz, 24.502 euro ordaindu dira guztira 2015-2017 aldian; 2018an, berriz, eta ez da inolako zenbatekorik ordaindu.

Gure gomendioak:

- *Egiturazko lanpostu hutsetarako deialdiak egitea, Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezartzen diren aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarrietako aukeren arabera.*

- *Epai judizialak epe barruan eta behar bezala betearazteko eskatzea, hartara saihestuz Udalak eska ditzakeen eskubideak preskribatu daitezten.*

³ Hirugarren alegazioaren bidez aldatutako paragrafoa.



*Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak*

Kapituluko honako gastu-partida hauek berrikusi ditugu:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Musika Eskolako egoitzaren garbiketa	7.359
Gestorien kudeaketa-gastuak	5.345
Guztira	12.704

Egindako lanean antzeman dugu gastu horiek ez daudela indarrean dagoen kontratu bakar batean ere oinarrituta.

Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espedienteak lizitatzea kontratuen indarraldia amaituta duten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan.

Aurrekontuko diru-sarrerak

Honako hauek dira erakunde autonomoaren diru-sarrerak

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	103.227
Transferentzia arruntak	166.766
Guztira	269.993

Tasen bidezko diru-sarrerak direla-eta egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da diru-sarrerak aplikatu beharreko ordenantzaren arabera likidatu eta bildu direla.

VI.4.14. Zahar-etxearen Patronatua

Erakunde autonomoan, honako hauek berrikusi ditugu:

Langile-gastuak

Langile-gastuak 498.636 eurokoak izan ziren 2018an, ehuneko 101eko bete-tze-portzentajearekin, eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 69 dira. 2017arekin alderatuz gero, gastu horrek ehuneko 25 egin du gora. Hona haren xehakatzia eta 2017koekiko konparazioa:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aitortutako betebeharrak, 2018	Aldea 2017/2018
Lan-kontratu mugagabea duten langileak	308.818	401.124	30
Gizarte-zamak	90.035	97.512	8
Guztira	398.853	498.636	25





Langileen gastuak gora egin du, nagusiki, batez besteko plantilla handitu delako Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziarekin hitzarmen bat sinatzeagatik eta langile gehiago kontratatu behar izateagatik, bai eta ekitaldia ixtean langileetako bati 35.000 euroko kalte-ordaina emateagatik ere.

Honako hau da plantilla organikoko lanpostuen 2018ko egoera:

Langileak	Musika Patronatua
Lan-kontratupekoa	22
Guztira	22
Lanpostu hutsak	22
Lanpostu hutsak (%)	% 100
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	19
Betetako lanpostu hutsak (%)	% 86

2018an, plantillako lanpostu guztien ehuneko 100 hutsik daude; horietatik, ehuneko 86 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 14k, bete gabe jarraitzen dute.

Egindako berrikuspenean oinarrituta, honako hau aipatu behar dugu:

- Lanpostu hutsak mugagabe ez-finko gisa kalifikatutako langileek eta aldi baterako langileek betetzen dituzte. Langile mugagabe ez-finkoen jatorria zerbitzuaren aurreko enpresa adjudikazio-hartzailearen langileen subrogazioa da; subrogazio hori 2016ko ekitaldian izan zen.
- Egoitzako lan-kontratupeko langileei "San Bartolome Zahar-etxea Patronaturako" idatzitako enpresako hitzarmen kolektibo propioa aplikatzen zaie.

Langileen nominen lagin bat berrikusi eta aztertu ondoren, konklusioa da ezen, oro har, ordainsariak betetako lanposturako ezarritakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla.

Gomendatzen dugu egiturazko lanpostu hutsetarako deialdiak egitea, Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezartzen diren aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarrietako aukeren arabera.





Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak

Kapituluko honako gastu-partida hauek berrikusi ditugu:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Catering zerbitzua-bizigaiak-elikadura	52.942
Laneko aholkularitza eta kanpoko aholkularitza	24.166
Energia elektrikoaren hornidura	21.473
Guztira	98.581

Egindako lanean ikusi dugu catering-zerbitzua eta energia elektrikoaren hornidura-zerbitzua dagokion adjudikazio-prozedura izapidetu gabe eman eta ordaindu direla. Catering-zerbitzuagatik ordaindutako gastuak direla eta, idazkari kontu-hartzaileak eragozpen-oharrak egin ditu.

Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espeditenteak lizitatzea kontratuen indarraldia amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera kontratazio publikoari buruzko araudiak hala aurreikusten duen kasuetan.

Aurrekontuko diru-sarrerak

Hauexek dira 2018. ekitaldian aitortutako eskubideak:

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	594.215
Transferentzia arruntak	118.647
Guztira	712.862

Tasen bidezko diru-sarrerak direla-eta egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da diru-sarrerak aplikatu beharreko ordenantzen arabera likidatu eta bildu direla.

Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak

Martzillako Udaleko alkate-udalburu Mario Fabo Calero jaunak honako hau azaltzen du:

Martzillako Udalaren 2018ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena 2019ko abenduaren 23an jaso dudala, eta idazki honen bidez honako alegazio hauek aurkezten ditudala:

Lehena.- Langile-gastuak (19-22 orrialdeak) direla eta, honako iruzkin hauek egin nahi ditut:

- Langileei PFEZaren atxikipena egiteari dagokionez. Argitu behar da 2019an, urtarrileko lehen astean, posta elektronikoko mezu bat bidali zitzaiola gure aholkularitzari, langile guztiek urte horretan kobratuko zituzten zenbateko gordinekin, PFEZaren tasak kalkula zitzaten. Gainera, 2020. urterako langileen ordainsariak prestatu dira, eta, beraz, oraingoan ere 2020ko urtarrileko lehen astean bidaliko zaizkio aholkularitzari. 2018. urteari dagokionez, hau da, ikuskatu den urteari dagokionez, esan behar da bai idazkari kontu-hartzailea eta bai erdi-mailako teknikaria 2018ko otsailean hasi ginela lanean; beraz, ziurtzat jo zen dena jada aginduta zegoela. Gainera, gure ustez, atxikitako tasa finkatuta zegoen taulan jasotakoa baino txikiagoa izanda ere, langile horiek errenta aitortpena egin zutenean gehiago ordaindu behar izanen zuten.

- Onartutako alegazioa.

Bigarrena.- Udalaren transferentzia arruntengatiko gastuak.

- Onartutako alegazioa.
- Idazkari kontu-hartzailearen 2018ko abenduaren 26ko txostenaren bidez, agerian jarri da, behin-behineko txostenak aurreratzen duen bezala, Martzillako Udalaren eta Martzillako Gazte Banda Kultur Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena legez kanpokoa dela. Txostenean udalbatzari gomendatzen zaio hitzarmen hori ofizios berrikusteko espedientea has dezan, deuseza dela deklaratzeko aldera. Toki Entitateen Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/4986 Errege Dekretuaren 82. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, gaia Kontuen Batzordearen irizpenaren mende jarriko da, hurrengo osoko bilkurako gai-zerrendan sartu aurretik. Proba gisa, Kontuen Batzordearen deialdia erantsi da. Batzorde horren bilkura abenduaren 27an egingen da, 13:00etan.





Alegazio horien froga-agiri gisa, honako dokumentu hauek erantsi zaizkio idazki honi:

- Kontuen Batzordearen deialdia.

Hirugarrena.- Fiskalizatutako arloak. Langile-gastuak (31-33 orrialdeak).

- Onartutako alegazioa.

Hori guztia dela eta, honako hau eskatzen dut:

Alegazio-idazki hau eta horrekin batera doazen argudioak eta dokumentuak garaiz eta behar bezala aurkeztutzat jo daitezela, eta izapidetzeko onar daitezela, eta organo eskudunak batzuk eta besteak kontuan har ditzala.

Martzillan, 2019ko abenduaren 27an

Mario Fabo Calero, alkatea





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna

Martzillako Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, txostena aldatu dugu, onartutako alegazio hauekin:

- Aintzat hartu dugu ordainsariak lan-araubideko kontratu bati egokitzeari buruzko justifikazioa, nahiz eta Udalak oker aurreikusi duen administrazio-araubideko kontratu bat dela.

- Egiaztatu dugu 2015ean, 2016an eta 2017an emandako eta ordaindutako dirulaguntzak itzultzeko espedienteak hasi dela.

- Egiaztatu dugu 2019ko abenduan itzuli egin direla langile batek bidegabeki jasotako ordainsariak, 2015eko maiatzeko epaia betez.

Gainerako alegazioei dagokienez, txostenaren ondorioak ezertan aldatzen ez dituen azalpenak direla iritzirik, txostenari atxiki zaizkio.

Horrekin guztiarekin, behin betikotzat ematen dugu txostena.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

